

FRANCISCA DE ACULODI

Sariaren VII Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren VII. Edizioaren —2019/2020 ikasturtea— Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 30 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako bi lan hauei ematea erabaki du:

Euskaraz:

ASILO ESKUBIDEA ETA GENEROA -EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALA AZTERGAI-

Gaztelaniaz:

ALTAS CAPACIDADES INTELECTUALES, ALGO MÁS QUE SER INTELIGENTES: ALUMNAS ADOLESCENTES CON ALTAS CAPACIDADES INTELECTUALES Y SU AUTOCONCEPTO

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiak 2021eko otsailaren 15a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-vii-edizioa> orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

Libe De La Puente Ruiz

Zuzenbideko gradua (Zuzenbide Fakultatea)

Tutorea: Iñigo Iruretagoiena Agirrezabala

ASILO ESKUBIDEA ETA GENEROA -EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALA AZTERGAI-

LABURPENA:

Migrazioek ukaezina den giza aberastasuna eta kultura esportatzeaz gain, tradizioak, ohiturak eta errituak esportatzen dituzte, askotan, harrera-herrialdeen egitura sozial eta juridikoetan erronkak suposatzen dituztelarik (García Ruiz, 2007: 5), bereziki, giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen kontrakoak badira. Honen adibide, emakumeen mutilazio genitala (aurrerantzean EMG) dugu: menpekotasunean oinarritzen den sistema patriarkalaren izenean, eskema sozial eta kulturalak sustraitzen dituen praktika.

EMG praktikatzek suposatzen duen larritasunak, erantzun eta politika sendoak eskatzen ditu; horietariko bat, errefuxiatu izaeraren aitortzea delarik. Azken urteotan asko izan dira EMG dela eta asilo-eskaerak tarteratu dituzten emakumeak. Asilo eta genero binomioak, ordea, generoan oinarritutako asilo eskaerak asilo sistematik at geratzea suposatu du. Zentzu honetan, «Asilo eskubidea eta generoa: emakumeen mutilazio genitala aztergai» izenburupean burututako lanaren xedeak, EMG sufritzeko edo sufritutako arrazoipean asilo eskaera tarteratzen duen emakumeari ematen zaion trataera juridikoa aztertzea eta errefuxiatu izaera aitortzeko oztopo nagusiak identifikatzea dira, besteak beste, egungo ordenamenduen eta asilo sistemaren gabeziak eta erdiespenak zehazteko.

Hala, bi dimentsioren elkarrekikotasunean funtsatu da lana: emakumeen giza eskubideen urraketan eta asilo eskubidean, zeintzuek bat egiten duten EMG-ren supostuan. Ildo beretik, EMG dela eta tarteratzen diren asilo eskaerek sorrarazten dituzten oztopoak identifikatzeko, adierazitako dimentsioei modu banatuan heldu zaie bi galdera planteatuz: lehenik, ematen al dio giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak erantzun egokia emakumeen giza eskubideen urraketari? Eta bigarrenik, EMG sufritu edo sufritzeko arriskua duen emakumeari errefuxiatu izaera maiztasunez ez aitortzearen zergatia Genevako Konbentzioan generoagatiko jazarpenera espresuki ez biltzean datza?

Planteatutako galderei erantzuteko, errefuxiatuen eta EMG-aren inguruko errebisio bibliografiko bat burutzeaz gain, ikerketa objektuaren inguruko datuen analisia egin da.



Horretarako, metodologia kualitatiboa eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea osatzen duten nazioarteko araez eta errefuxiatuen nazioarteko zuzenbidearen ikerketez baliatuz.

Gaztelaniaz eginiko lanaren irabazlea:

Naroa Martos Sanchez

Pedagogia gradua (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea)

Tutorea: Ana Aierbe Barandiaran

ALTAS CAPACIDADES INTELECTUALES, ALGO MÁS QUE SER INTELIGENTES: ALUMNAS ADOLESCENTES CON ALTAS CAPACIDADES INTELECTUALES Y SU AUTOCONCEPTO

LABURPENA:

En el presente trabajo se ha ahondado en la realidad de las adolescentes con Altas Capacidades Intelectuales (AACC) desde la perspectiva de género, con especial atención al desarrollo del autoconcepto. Para ello, se ha realizado un estudio descriptivo transversal ex post facto con jóvenes chicas (10-17 años) con AACC.

Partiendo de los datos obtenidos por parte de las mismas, como de la perspectiva de algunas de sus familias, se ha logrado comprobar que algo más de la mitad de las estudiantes participantes en el estudio presentan un autoconcepto negativo; dato que va en concordancia con aquellos trabajos que concluyen que las adolescentes con AACC presentan puntuaciones bajas en el autoconcepto general. También se han hallado diferencias significativas entre las adolescentes con y sin AACC de acuerdo a la edad, a favor de las de menor edad, tanto en el autoconcepto general como en cuatro dimensiones: físico, social, familiar y personal.

Así pues, considerando la necesidad de tener un autoconcepto positivo y los bajos resultados obtenidos tras este estudio, para mejorar en dicha competencia intrapersonal, se plantean líneas de mejora desde la perspectiva de la pedagogía.

Es importante profundizar en los colectivos con Necesidades Específicas de Apoyo Educativo (NEAE), como puede ser el de las AACC, ya que son colectivos que se encuentran en riesgo de exclusión social. Además, a través de este trabajo se ha contemplado la realidad de dicho colectivo, desde una perspectiva de género y también, se ha podido comprobar que no solo se debe trabajar el autoconcepto a nivel general, sino de manera diferenciada, en cada una de las dimensiones de esta competencia intrapersonal.

Para finalizar, añadir que se pretende visibilizar y difundir estos resultados obtenidos en este TFG, mediante plataformas online y/o entidades que abogan por la igualdad de género.